

Zer berri

2022/06/01

UNIJES SOLASALDIAK. NORA GOAZ? ERALDATZEKO AHALMENA DUTEN ALDAKETEN BILA. SOLASALDIA DANIEL INNERARITYREKIN

Francisco José Ruiz Pérez SJ, Deustuko Unibertsitateko Teologia Fakultateko dekanoa, eta **Daniel Innerarity** irakaslea, filosofoa eta saiakera-egilea, Ikerbasque ikertzailea eta Gobernantzeko zuzendaria. [Argibide gehiago.](#)

2022/05/19

GALA IGNATIUS 500 DEUSTO (DONOSTIA)

Ikasturtean zehar gertatu dena gogoratzeko eta unibertsitate elkarte bezala ospatzeko. [Argibide gehiago.](#)

2022/05/13

GALA IGNATIUS 500 DEUSTO (BILBAO)

Ikasturtean zehar gertatu dena gogoratzeko eta unibertsitate elkarte bezala ospatzeko. [Argibide gehiago.](#)

2022/03/15

XXV ANAIA OROZ ARGAZKI LEHIAKETA

Koloreko eta zuri beltzeko modalitateekin, ikasleentzat, langileentzat eta ikasle ohientzat, unibertsitateko elkartearen sormen artistikoa bultzatzeko asmoarekin. Edizio honetan, Ignaziotar Urtearen ospakizunarekin egiten du bat hurrengo gaiarekin: "Gauza guztiak beti berri: Atera bidera". [Argibide gehiago.](#)

2022/03/12

SAN IGNAZIO ETA SAN FRANTZISKO XABIERKOAREN KANONIZAZIOAREN 400. URTEURRENA

2021eko maiatzetik Jesusen Lagundia mundu mailan ospatzen ari den Ignaziotar urtearen testuinguruan, aurten Loiolako San Ignazioaren, ordenaren sortzailearen, eta San Frantzisko Xabierkoaren, lagundiko lehenengo kideetakoaren, kanonizazioaren 400. urteurrena ospatuko da. Ospakizuna martxoaren 12an egingo da munduko probintzia guztietan baina aparteko oihartzuna izango du Erroman, eta Espainiako Probintziak ere egun hori hartuko du ospatzeko, Plataforma Apostoliko guztietan hainbat

ekintzarekin. Bilbon eta Donostian egingo diren ospakizunekin bat egitera gonbidatzen zaituztegu. [Argibide gehiago.](#)

2022/02/21 - 10:45 – 11:15

IHES-GELA ERREALITATE BIRTUALAREKIN

Ihes-gela birtual honekin, lotura berriaren fasea hasiko da. Oculus Quest Errealitate Birtualeko betaurrekoen bidez, Bilboko campuseko Auditoriumeko Klaustrora hurbiltzen diren pertsonak hainbat erronka konpondu ahal izango dituzte. Esperientzia murgiltzaile honek bete-betean sartzen gaitu Konbertsioaren Kaperan, duela 500 urte Ignazio Loiolakoa bizitzaren eta heriotzaren artean eztabaidan ari zen gelan. Eriondoan egindako irakurketek aditzera eman zioten bizitzaz aldatu eta erromes joan behar zuela Kristoren bila. [Informazio gehiago.](#)

2022/02/9-10

TEOLOGIA JARDUNALDIAK "TRANSFORMAZIOA ETA ESPIRITUALTASUNA"

Deustuko Unibertsitateko Teologia Fakultateak bere urteroko Teologia Jardunaldiak ospatuko ditu, online modalitatean. Oraingo edizioa "Transformazioa eta Espiritualtasuna"-ri buruz izango da, duela 500 urte Ignazio Loiolakoa eraldatu zuen esperientzia horretara hurbilduz. [Informazio gehiago.](#)

2021/11/12-16

IGNAZIOTAR ASTEA

Azaroaren 12tik 16ra, Unibertsitateak Ignaziotar astea ospatu du, ignaziotar identitatea ospatzeko hainbat jarduera izan direlarik. Bestalde, Pedro Arruperen jaiotzaren 114. urteurrena (azaroaren 14an) eta El Salvadorreko UCAko martirien erailketaren urteurrena (30 urte baino gehiago) ere gogoratu dira. Aldi berezi hau Ignaziotar urtearen ospakizunekin lerrokatuta dago eta haren barruan kokatzen da, "gauza guztiak Kristorengan berri ikusi" lema hartuta ospatzen den urtearen barruan. Horrela, Deustuk bat egiten du San Ignazioren konbertsioaren 5. mendeurrena gogoratzeko antolatu den Ignaziotar urte bereziarekin. [Informazio gehiago.](#)

2021/10/21-23

ANAIA GARATE DOHATSUA EZTABAIDA AKADEMIKOKO TXAPELKETA

Gaur egungo gaietan sakontzeko eta ikasleen pentsamendu kritikoa lantzeko eta sustatzeko, berriro ekingo zaio Anaia Garate Dohatsua Eztabaida Akademikoko Txapelketari Deustuko Unibertsitatean, urriaren 21etik 23ra. Eztabaida Klubeko 50 ikaslek baino gehiagok aldeko eta kontrako jarrerak defenditu beharko dituzte gai honen inguruan: "Gazteen erlijiozaletasuna eraginkortasunez hazteko bidea ematen du Espainiar

gizarteak?” Finala jendaurrekoa izango da eta urriaren 23an izango da, larunbatean, 13:00etan, Bilboko campuseko Entzungelan. [Argibide gehiago](#)

2021/09/23 -15:00-16:30 h

MAHAI-INGURUA: BIDEAN DOAZEN EMAKUMEEN BIZITZAK

Datorren ostegunean, irailaren 23an, Ignaziotar Urtearen bigarren etapari emango diogu hasiera, “Zatiketa: Munduaren hausturarekin sentibilizatzen eta haietara hurbiltzen gaituzten esperientziak” izenburupean. Etapa horri hasiera emateko, mahai-inguru bat izango dugu. Bidean doazen emakumeen bizitzak izango du izena. Bilboko campuseko Entzungelan izango da ekitaldia, 15:00etatik 16:30era. [Argibide gehiago eta izena ematea.](#)

2021/09/14 -19:00-20:30 h

PEDRO RICARDO BARRETO JIMENO S.J. KARDINALAREN HITZALDIA

Datorren asteartean, irailaren 14an, Pedro Ricardo Barreto Jimeno S.J. kardinalak, Huancayoko artzapezpiku metropolitarrak, Peruko Apezpikuen Batzarreko lehenengo presidenteordeak eta 2020tik Eliz Sare Panamazoniarreko (REPAM) presidenteak, “**Actualidad de Ignacio de Loyola en el hoy de la Iglesia**” hitzaldia eskainiko du. Ekitaldia **lcaza entzungelan** izango da (Bilboko campusean). [Informazio gehiago.](#)

2021/09/10-13:00 h

FRANTZISKO GARATE DOHATSUAREN OMENEZ EUKARISTIA

Datorren ostiralean, irailak 10, Eukaristia ospatuko dugu Frantzisko Garate dohatsuaren omenez. Arruperen hitzetan, Frantzisko Garateren bizitza Deustun inoiz emandako ikasbiderik onena izan da. Denok gaude gonbidatuak ospakizunera. Eukaristia 13:00ean kapera gotikoan (Bilboko Campusa) izango da.

2021/06/10-19:00-20:00 h

DEUSTOFORUM. DARÍO MENOR: "AITA ARTURO SOSAREKIN (SJ) SOLASEAN"

2021eko ekainaren 10ean, ostegunean izango dugu Daría Menor eta Silvia Rozas kazetariekin topaketa izateko aukera DeustoForumen barruan. Aita Sosarekin elkarrizketan izan diren kazetarien ikuspuntutik, Lagundiaren, Elizaren eta XXI. mendeko komunikazioaren inguruko egungo hausnarketak hurbilduko dizkigute. **Lekua:** Entzungela. Eraikin Nagusia, Bilboko campusa (toki kopuru mugatua, ezinbestekoa da izena ematea). Online saioa ere izango da (izena eman duten pertsoneri sartzeko esteka bidaliko zaie) [Ikusi saioa.](#)

2021/05/23 - 20:00 (ekitaldi irekia eta online)

ERROMA: “IGNAZIOREKIN ERROMES” OTOITZALDIA

Online eskainiko da ignaziotar mundu osorako, Aita Jenerala bertan dela. Hiru aldiz eskainiko da: 20:00etan Manilako orduan (PST), Erromakoan (CET) eta New Yorkekoan (EDT). Bakoitzean hiru hizkuntza hautatzeko modua egongo da: ingelesa, gaztelania eta frantsesa. Egin bat [orrialde](#) honetan.

2021/05/20 - 18:00 (ekitaldi irekia eta online)

IGNAZIOTAR URTEAREN HASIERAKO EUKARISTIA

Iruñeko katedraletik, elkarmeza, elizbarrutiko artzapezpiku Francisco Pérez González buru eta Aita Jenerala bertan dela. Azken horrek eskainiko du predikua. Espainian Jesusen Lagundiak duen You Tubeko kanaletik eskainiko da, [esteka](#) honen bidez.

2021/05/19 - 13:00

EUKARISTIA

Ikasturtearen amaierako eukaristia ospatuko dugu Kapera Gotikoan (Bilboko campusetik eskainiko da [esteka](#) honen bitartez) eta Gradu aretoan (Donostiako campusean).

2021/05/19 - 10:50

IGNAZIOTAR URTEAREN INAUGURAZIOA DEUSTUN (BILBAO)

Atsedenerako tarte bat hartuko dugu 10:50etik 11:10era, Ignaziotar Urtearen inauguraziorako. Entzungelan izango da. [Informazio gehiago](#).

2021/05/18 - 18:00etatik 19:30era (ekitaldi irekia eta online)

ELKARRIZKETA ARTURO SOSA AITA JENERALARI

Silvia Rozas kazetari eta Jesusen Alabak, Ecclesia aldizkariaren zuzendariak, elkarrizketa egingo dio A. Jeneralari Jesuitas Maldonadotik (Madril). Topaketa Jesusen Lagundiak Espainian duen You Tubeko kanaletik eskainiko da [esteka](#) honen bidez.

2021/05/18 - 11:40

IGNAZIOTAR URTEAREN INAUGURAZIOA DEUSTUN (DONOSTIA)

Atsedenerako tarte bat hartuko dugu 11:40tik 12:00etara, Ignaziotar Urtearen inauguraziorako. Foro aretoan izango da (Larramendi eraikina). [Informazio gehiago](#).